



Arartekoaren 2014ko martxoaren 6ko ebazpena. Honen bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baten etenaren iraupena berriro azter dezala.

Aurrekariak

2013ko maiatzaren 31n (...) andreak kexa bat egin zuen Arartekoaren aurrean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (SBE) eten zitzaiolako, bi arrazoiengatik. Batetik, enplegu-eskatzaille gisa alta emanda ez zegoelako. Erreklamazio egileak egoera hori berretsi zuen, uste baitzuen lan jarduera bat hasitakoan ez zuela enplegu-eskaera aktibo mantendu beharko. Bestalde, lan jarduera amaitu izana ez jakinaraztea.

Ordainketak 2012ko azaroan eten ziren.

Gainera, jakinarazi zigun behin baino gehiagotan galdetu zuela bere espedientearen egoeraz, eta Lanbiden jakinarazi ziotela etena mantentzea ebatzi zela, ez zuelako bere alabaren elikagaien pentsioa eskatu. Esan zuen ez dakiela non dagoen bere alabaren aita azken hamabi urteetan. Hala eta guztiz ere, doako justizia eskatzeko izapideak hasi ditu, elikagaiak erreklamatzeko.

Ekainaren 17an, Arartekoak informazio eskaera zuzendu zion Lanbideri, galdetzeko zergatik mantentzen zen oraindik prestazioaren etena. Zenbait gogoeta azaldu zituen, bai motibazioaren zehaztugabetasunari buruz bai etenaldiak zazpi hilabete irauteari buruz.

Urriaren 24an Lanbideren erantzuna jaso zen, epez kanpo. Beraren bidez adierazi ziguten ordainketak eten ondoren, urtarrilaren 21ean, berrikuspen prozedura hasi zela. Horren ondorioz, informazio horren arabera, erreklamazio egileak, lan egiteari utzi ondoren, bi hilabete behar izan zituen enplegu eskaera aktibatzen. Era berean, jakinarazi ziguten laneko baja ez zuela jakinarazi erreklamazio egileak. Horregatik, urtarrilaren 21ean SBErako eskubidea eteteko proposamena egin zen.

Gainera, Lanbideren idazkian izandako prozeduraren berri ematen zaigu. Zehazki, adierazten zaigu Lanbideko zuzendari nagusiaren otsailaren 1eko ebazpenaren bidez prestazioaren etena agindu zela.

Gure gogoetei erantzunez, Lanbidek 18/2008 Legearen 19.2 artikulua edukiaz egiten duen interpretazioa jakinarazi zigun. Interpretazio horren arabera, SBEaren titularra den pertsona eta bizikidetzaren unitateko kideak enplegu-eskatzaille gisa agertu behar dira etengabe, lan-egoera gorabehera.

Azkenik, jakinarazi zitzaigun erreklamazio egilearen SBEa 2013ko abuztuaren 9tik aurrera ematen hasi dela berriro.





Lanbidek emandako informazio lausoa kontuan izanik, azaroaren 6an bigarren informazio eskaera egin genuen, bi konturi buruz galdetzeko.

Batetik, azpimarratu genuen 19.2 artikulua bakarrik aplikatu ahal dela SBE gizarteratzeko eta gizarte babeserako oinarritzko errenta gisa aitortzen denean. Beraz, ezin zaie betebeharrari exijitu SBE laneko sarreraren errenta osagarri gisa jasotzen duten pertsonen eta, horrenbestez, SBE etenaldian daukaten pertsonen, prestazioari dagokion zenbatekoa baino zenbateko handiagoko laneko sarrerak jasotzen dituztelako.

Bestetik, etenaldiari buruzko gogoetak errepikatu genituen. Azpimarratu genuen erreklamazio egileak bere kasuari buruzko beste ebazpen bat aurkeztu zigula, oraingoa uztailaren 12koa. Beraren bidez, Lanbidek *"etenaldi egoera mantentzea"* erabaki zuen, beste kausa batengatik (elikagaien pentsioa ez eskatzea), etenaldiaren prozedura hastea ekarri ez zuena. Gainera, gogorarazi genuen arazuko aurreikuspen bat dagoela SBEaren etenaldiaren iraupenaz: horren arabera, etenaldia ekarri duten arrazoiek irauten duten bitartean iraungo du etenaldiak.

2014ko urtarrilaren 16an Arartekoak errekerimendu bat egin zuen, bigarren informazio eskaera honek ez zuelako erantzunik jaso.

2014ko urtarrilaren 30ean jaso genuen erantzuna. Erantzunean jakinarazi ziguten erreklamazio egileak alta hartu zuela laneko jarduera batean 2013ko uztailaren 3an eta Lanbideri abuztuaren 21ean jakinarazi ziola.

Bestalde, erantzun zuen Lanbideren interpretazioaren arabera enplegu-eskatzaile gisa altan egoteko betebeharrari *"prestazioa etenda ez dagoenean eutsi behar zaiola, baita interesdunari prestazio hori lan-osagarri gisa ordaintzen zaionean ere"*. Lehenengo idazkian azaldutakoaren kontra, honetan azaldu ziguten ez zela hori izan prestazioa eteteko kausa, baizik eta lan-jarduera uztea epe barruan ez jakinaraztea.

Bestalde, erantzun-idazkia aurrekoaren kopia da, hitzez hitz, testuaren amaieran erantsi zaion zati batekin: *"Lehenago azaldu denez, interesdunak prestazioa berriz emateko eskatu zuen, baina, dagokion prozeduraren izapideak egin eta gero, ez zitzaion eman, ez baitzuen adierazitako dokumentazioa eman"*. Ulertzen dugu alabaren elikadura-pentsioaren eskaeraz ari dela.

Gogoetak

1. Esan behar dugu Lanbidek ez duela bete 3/1985 Legearen 23 eta 26. artikuluetako agindua, euskal administrazio publikoek Arartekoari laguntzeko daukaten betebeharrari buruzkoa, informazio eskaerak epe barruan erantzunez.





2. Kexaren edukiari helduz, lehenik eta behin esan behar dugu 18/2008 Legearen 19.2 artikulua testua aipatu beharra dagoela, SBERako eskubidea daukaten pertsonen betebeharrari buruzkoa. Honela dio: *Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren titularrek, 1. paragrafoan jasotakoez gain, beste betebeharrak ere izango dituzte: (...)Titularra eta haren bizikidetzaren unitateko kideak lanerako adinean daudenean, enplegurako prest egotea. Salbuespena izango dira honako pertsona hauek (...)*”

Hau da, gure ustez, transkribatutako manua irakurriz gero, ondorioztatzen da enplegu-eskaera aktibo mantentzeko betebeharra ukitutako pertsonen lan egiten ez duten kasuetan bakarrik exijitu ahal dela (hau da, oinarrizko errenta gizarteratzeko eta gizarte babesa jasotzeko helburuz eskuratzen dutenean).

Gogora ekar dezagun, Lanbidek gure bigarren informazio eskaerari emandako erantzunaren arabera, etete ebazpenaren idazkian eta lehenengo erantzunean azaldutakoaren kontra, kausa hori ez litzatekeela izango prestazioa eteteko arrazoia kasu honetan.

Erreklamazio egileak eta Lanbidek emandako informazioaren arabera, erreklamazio egilea 2012ko uztailaren 3an hasi zen lanean. Data horretan gertatu zen enplegu-eskaera eguneratzeko betebeharraren ustezko lehenengo ez betetzea. Bigarrena irailaren 3an gertatu zen, hau da, Lanbideri lanean ari zela epez kanpo jakinarazi eta bi aste beranduago.

SBE laneko sarreraren osagarri gisa jasotzen duten pertsonen betebeharrak espezifiko bakarrik daukate, 18/2008 Legearen 19.3 artikuluan jasotakoa alegia: *“enplegua hobetzeko gizarteratze-hitzarmena negoziatzea, sinatzea eta betetzea, lege honen III. tituluko I. kapituluan aurreikusitako moduan. Ondorioz, ezin izango dute borondatezko bazarik hartu enpleguan, ez behin betikorik ez aldi baterakorik, ez eta lan-eszedentziaz baliatu ere, justifikatutako arrazoi larriak ez badago”.*

Alegia, lan egiten duten pertsonen ez dute zertan enplegu eskatzaile gisa alta egoeran egon. Betebeharrak hori eskatzen zaie bakarrik diru-sarrerak bermatzeko errenta gizarteratzeko eta gizarte babeserako oinarrizko errenta gisa jasotzen dutenei (19.2 artikulua).

Betebeharrak hori 19.3 artikuluan aipatzen den gizarteratze hitzarmenaren bidez exijitu ahal da. Izan ere, uler dezakegu enplegua hobetzeko neurri horien ikuspegitik eskaera aktibo mantentzea mesedegarria izan daitekeela, SBEa lanaren osagarri gisa jasotzen duen pertsonaren egoera hobetu ahal duelako. Baina exijentzia hori ezin da inola ere ondorioztatzea prestazioaren arauditik.





Arrazoi honen ondorioz sustatutako kexa guztien ezaugarri bat da eragindako pertsonen agerian jarritako harridura. Kexagile horiek diote inork ez diela adierazi egoera horretan enplegu eskatzailearen txartela zigilatuta behar dutenik. Izan ere, uste dute lanean dauden bitartean betebeharrak hori indargabetu egiten dela. Horrenbestez, uste dugu Lanbidek berariaz jakinarazi beharko lukeela kasu hauetan ere enplegu eskaera mantendu beharra dagoela, gizarteratze hitzarmena sinatuz, betebeharra eratzten duen tresna.

3. Gogora dezagun ordainketen etena 2012ko azaroan gertatu zela. Ez dakigu erreklamazio egileari idazkia bidali zitzaien edo ez etete prozeduraren hasieraren berri emateko. Gero, Lanbidek prestazioaren etena ebazteko proposamena egin zuen 2013ko urtarrilaren 21ean, berrikuspen prozedura hasi zen egun berean, eta azkenik SBE eten zuen, 2013ko otsailaren 1eko ebazpenaren bidez. Etenaldia 2013ko uztailearen 12a baino gehiago luzatu zen (egun horretan eman zen etenaldia mantentzea erabaki zuen ebazpena, etenaldia hasieran ekarri zuen kausa ez zen beste kausa baten ondorioz).

Lanbidek Arartekoari bidalitako idazkietan ez da inola ere aipatzen erreklamazio egileak prestazioa berriro emateko eskaerekin batera aurkeztutako alegazioen balorazioa (martxoaren 1eko edo uztailearen 11ko eskaerak, eta izapidetzean zehar zenbait dokumentazio aurkeztea).

Lanbidek bidalitako informazioa osatu gabea den arren, uste dugu egoera hori urtarrilaren 21ean hasi zuen berrikuspen prozeduraren ondorioz gertatu zela. Otsailaren 1eko etetea eta etenaldia mantentzea (uztailearen 12an ebatzia) honelako bi prozeduretan daude, eta Lanbidek bakar bat aipatzen du (ez du esaten zein; erreklamazio egileak ekarritako dokumentaziotik ondorioztatzen dugu 2013/REV/018380 eta 2013/REV/002335 prozedurak daudela).

Lanbideri dagoeneko jakinarazi diogu, beste kexa espediente batzuen ondorioz, gure ustez jarduteko modu honek nahasmena sortzen duela. Izan ere, ez dago argi zein espedienteri gehituko zaizkion ukitutako pertsonak aurkeztu dituen alegazioak, ezta epeak zeintzuk diren ere. Berrikuspen prozeduretako baten hasiera (erantzunetan aipatutako bakarra), 2013ko urtarrilaren 21ekoa, bat dator etete proposamen batekin, otsailaren 1eko etete ebazpenarekin ebatzi zena. Esan dugunez, ez dakigu Lanbidek erreklamazio egileari eperik eman dion alegazioak egiteko, ezta prozeduraren hasiera jakinarazi zaion ere, 147/2010 Dekretuaren 53.2 artikuluan ezarrita dagoenez, horri buruzko aipamenik ez delako egin eta administrazio egintzen artean ez delako ia denborarik igaro.

Berrikuspen prozedurak ez dira SBEaren araudian aurreikusten. Araudi hori prestazioaren eskaera, etete, aldaketa eta azkentze prozedurei buruzkoa da bakarrik.





Lanbidek SBE espedienteak berrikusteko ahalmena aitortuta dauka, 18/2008 Legearen 24. artikulua araberaz: *“Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak berrikuspena egingo du hiru hilabeteko prestazioaren kontrol telematikorako gehituz doazen eskakizunei dagokienez; nolahi ere, egokitzat jotzen den behar adina berrikuspen egin ahalko ditu, prestazioa ematea eragin duten kausek bere horretan dirauten egiaztatze aldera”*. Baina gure ustez, *ad hoc* prozedura bat sortzean, araudian araututa ez dagoena eta espediente bat baino gehiago irekitzea dakarrena, kasu honetan bezala, ukitutako pertsonen Lanbideren jarduketan aurrean dauzkaten bermeak kaltetzea gerta daiteke, baita ebazpen epeak bidegabe luzatzea ere.

4. Hain zuzen ere, berrikuspen espediente hauek irekitzearen beste ondorio bat kasu honetan ikus daiteke, etetearen iraupena luzatzeari dagokionez.

18/2008 Legearen 26.3 artikulua honela aztertzen du kontu hau: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, ofizioz edo interesdunak eskatuta, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da. Prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da”*.

Itxuraz, Lanbidek prestazioaren ordainketari berriro ekitea berrikuspen espediente horien izapidetzeari lotzen dio. Horregatik, erreklamazio egileak ikusi du etete egoera hori epe zehaztugabe baterako mantentzen zela.

Gure iritzian, Lanbidek ikusi zuenean etetea ekarri zuten inguruabarrak desagertu zirela, betekizunik galdu ez zela ikusiz gero, ordainketei ekin behar izan zien berriro. *“Prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, ofizioz edo interesdunak eskatuta, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da”* esaera hitzez hitz interpretatzea ezin daiteke aitzakia izan etete egoerari eusteko, neurri horretarako arrazoiak desagertu denean, berrikuspen espediente berria irekiz. e dugu 18/2008 Legearen helburuak betetzeko jardunbide egokiagoa dela SBEaren ordainketari berriro ekitea, eteteko arrazoiak desagertu dela egiaztatutakoan. Halere, betekizunak betetzen diren egiaztatu ahal da, eta haientakoren bat betetzen ez bada, etete prozedura hasi ahalko litzateke. Baina etete denboraldia luzatzean, ordainketei berriro ekitea *ad hoc* sortutako berrikuspen prozedura baten ebazpenari lotuz, gure iritzian, gizarte larrialdiko egoerak larriagotzen dira, SBEaren helburua horrelako egoerak ekiditea izanik hain zuzen ere.

5. Horrek beste gai batera garamatza (ez dugu honetan sakonduko, Arartekoaren 1/2014 gomendio orokorrean egin baikenuen), SBERako





eskubidea kaltetzen duten ebazpenak behar bezala motibatu beharri dagokionez.

Kasu honetan, Lanbidek erreklamazio egileari SBE hasieran eteteko eman duen arrazoia ez da oso definitua. Otsailaren 1eko idazkiaren arabera, kausa "lanerako prest ez egotea" zen, denboraldiak aipatu gabe. Bestalde, uztailaren 12an hau adierazi zen: *"Mantenu pentsioaren prozeduran, behin behineko neurriak ez aurkeztea. Prozesuak aurrera jarraitu behar du, eta doako justiziaren eskaera ez da nahikoa(sic)".* Baina ez da aipatzen erreklamazio egileak aurkeztutako dokumentazioa zein manuren arabera ez den balioduna (18/2008 Legearen 61.2 artikuluan eskubide ekonomikoak aipatzen dira, elikagaiei buruzkoa barne, *"indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera"*.

Nolanahi ere, arrazoi zehatz hori, gure ustez, ezin da erabili SBEaren *"etenaldiari eusteko"*, gutxienez erreklamazio egileak aurkeztutako agiriak ikusita. Agiri horien artean 2013ko ekainaren 6ko ziurtagiri bat dago, Lanbideren bulego egokiko administrazio unitateak emana, erreklamazio egileak eskatuta. Hauxe dakar ziurtagiriak: *Ante la consulta realizada por D. XXX como abogado designado en turno de oficio de la usuaria, podemos responder que ambos procedimientos (privación total de la patria potestad o demanda de medidas en relación a la menor) son válidos para la tramitación de su expdte. Queda a criterio de abogado y de la usuaria la decisión que más convenga (la que sea más rápida de resolver)"*..

Horrenbestez, erreklamazio egileak ekainaren 11n demanda bat egin zuen bere alabaren aitaren aurka, guraso ahalgoa kentzeko helburuz. Demandaren kopia bat eraman zuen Lanbidera.

Gero, SBEa berriro emateko eskatu zuen, arestian azaldu denez, uztailaren 11n. Biharamunean, *"etenaldi egoera mantentzea"* ebatzi zen kausa horregatik, Lanbidek ekainaren 6ko ziurtagiriaren bidez kausa hori bertan behera geratu zela adierazi zuen arren.

Motibazioa oso zehaztugabea denez, uste dugu erreklamazio egileak defentsa ezeko egoera batean geratu dela. Aurkeztutako alegazioak ukatu zaizkio, arrazoiak argi eta garbi azaldu gabe eta, itxuraz, Lanbideren irizpidearen aurka eginez.

6. Prestazioa kentzeko bigarren arrazoi horrek beste kontu garrantzitsu batera garamatza, ebazpenen eta berrikuspen prozeduren edukiari lotua. Aurkeztutako informazioaren arabera, uztailaren 12an prestazioaren eteteari eustea ebatzi zen, etenaldia ekarri zuena ez zen beste kausa batengatik, otsailaren 1eko ebazpenaren motibazioa kontuan izanik.





Indarrean dagoen araudiaren arabera, SBERako eskubidea eteteko bitarteko bakarra eteteko prozedura da¹. Horrela, 147/2010 Dekretuaren 53. artikulua honako hau ezartzen du: *“Zenbatekoa aldatzeko eta diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eteteko eta azkentzeko prozedurak udalak zein dagokion foru-aldundiak hasi ahalko dituzte, ofizioz edo alderdi batek eskatuta². Prozedurei ofizioz ekingo zaie, organo eskudunaren erabakiz, dagokion administrazioak, edozein bidetatik, prestazioaren aldaketa, etetea edo azkentzea eragiteko kausa izan daitezkeen gertakarien berri duenean. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziozko prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaio titularrari adierazitako bizilekura igorrita, prozedurak oinarri dituen arazoak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak adieraziz, baita ebazteko eta jakinarazteko epea eta 55. artikuluan ezarritako epean esanbidezko ebazpenik ezak izan ditzakeen ondorioak ere, eta hori guztia interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten”.*

147/2010 Dekretuaren 55.2 artikulua haxe adierazten du prestazioak eteteko ebazpenei buruz: *“Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak arazoitua izan beharko du eta gehienez bi hilabeteko epean emango da, aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasi den egunetik zenbatzen hasita (...).*

Hau da, SBEa eteteko, espediente bat hasi behar da. Espedienteari ukitutako pertsonari jakinarazi behar zaio, eta espedientea hasteko arazoak azaldu behar zaizkio. Gainera, alegazioak egiteko epea eman behar zaio. Gorago esan dugunez, prestazioa arautzen duen araudian ez dago berrikuspen prozedurarik.

Araudian ezarrita ez dagoen (eta beraz araututa ez dagoen) prozedura baten bidez eskubidea eten denez gero, erreklamazio egileari ez zaizkio ematen antolamendu juridikoak eskaintzen dituen bermeak. Goian transkribatutako manuen arabera, berme horien artean, entzunaldiaren printzipioaz gain, epe bat eskaintzea dago, Lanbidek hasitako etete prozedura ebazteko bete behar duena.

Etenaldiaren ondoren prestazioa berriro emateari buruz gorago esan duguna kontuan izanik, SBEaren ordainketak berriro egin behar dira etenaldia ekarri zuten kausak desagertzen direnean (18/2008 Legearen 26.3 artikulua), eta kausa berri bat agertzea ezin daiteke izan etenaldia “mantentzeko” kausa.

¹ Zehapen prozedura baztertuta. Prozedura hau, oro har, ez da aplikatu.

² Udal edo foru aldundiez egiten diren aipamen guztiak Lanbideri egiten zaizkiola ulertu behar da, 147/2010 Dekretua oraindik ez baitzaio egokitu 4/2011 Legeak egindako erreformari.



Gure iritzian, berriro esan behar dugu, kausa bertan behera geratzen denean prestazioa berriro ematen hasi beharra dago. Berrikuspen baten bidez ikusten bada betekizun bat aldi baterako galtzen dela edo betebeharrak ez direla betetzen, etete espediente berria hasi beharko da, eta ukitutako pertsonari jakinarazi, alegazioak aurkez ditzan.

Berrikuspen prozedura baten bidez “etenaldia mantentzea”, etenaldiaren jatorria beste berrikuspen espediente batean dagoenean, defentsa ezeko elementuen sortzaile izan daiteke, azaldu ditugun arrazoiengatik, prozedura zehaztugabea delako. Hori gertatzea ez da egokia honelako prestazioak izapidetzean, eskubide subjektiboa baitira.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, ondokoa egiten dugu:

GOMENDIOA

1. Erreklamazio egilearen SBEaren etenaldiaren iraupena berriro azter dezazula, goian azaldutako datu eta gogoetak kontuan izanik.
2. Orokorrean, SBErako eskubidea araudiak ezarritako prozeduraren bidez eten dezazula, eta berrikuspen prozedura ez dezazula jo neurri kaltegarri hau hartzeko bitartekotzat.